

BEHAR IZAN ADITZAREN JOKABIDEA ADITZ IRAGANGAITZEKIN

Behar izan aditza beregaina izan daitekeen arren, erabilera berezia du, gehienetan beste aditz batekin erabiltzen baita. Horrelakoetan aditz osagarria, partizipio burutuaren forma hartzen duena, iragangaitza baldin bada, jakin behar da zein kasu-marka dagokion perpauseko subjektuari, eta, beraz, zein aditz laguntzaile erabili behar den perpausean. Kasu horietan subjektua ergatiboan agertzeri da gehienetan eta, ondorioz, NOR-NORK saileko aditz laguntzailearekin jokatzeko da perpausa (erabilera inpersonalean izan ezik, jakina):

- (1) Baña zuk, Kristaua, ez dezu onetan geratu bear, ez (Agirre Asteasukoa, *Eracusaldiac III*, 320).
- (2) Adiskidetasun gaitzoren bat iduki duteenak auzoan (...) ez due ara geiago joan bear, ez (J.A. Mogel, *Komunioko sakramentuen gañean*, 186).
- (3) Denbora hartan idiak beroki egon behar du barruki bero batean (M. Dassançã, *Laborarien abisua*, 587).
- (4) Herriko lurak bistatik galduz gero, itzultzen da bertze alderat, joan behar duen eta dohan lekhu hartarat (P. Axular, *Gero*, 107).
- (5) Baña egundo ere ez dezu pentsatu bear, askok bezela (Mikel Atxaga, *Gaztetxo*, 100).
- (6) Aditzen dut ez dugula nehor hil behar, eta ez kolpatu edo zehatu ere... (E. Materre, *Doktrina kristiana*, 113).

Hala ere, kontuan hartu behar dugu, aditz osagarria aditz iragangaitza denean, datibodun formekin jokatzeko bada, orduan laguntzailea *izan* aditza izanen dela, NOR NORI sailean:¹

- (7) Aditzen dut (...) kortesia handiarekin mintzatu behar gatzaitzela, (...) (E. Materre, *Doktrina kristiana*, 112).
- (8) (...) uste dute zenbaitek Ikasbide zaar orreri yarrai bear gatzaiola, mendearen ondarreraño (Lizardi, *Itz-lauz*, 54).
- (9) Eta hartarakotzat joan behar gatzaitza aitaren partez mintzatzera (P. Axular, *Gero*, 218).
- (10) Onetarako ekin bear natzaio beste Itztegi bati (J.I. Iztueta, *Gipuzkoako probintziaren kondaira*, 132).
- (11) Halakotz behar natzaizu maiz hurbildu, eta behar zaitut maiz errezi (S. Pouvreau, *Iesusen imitazionea*, 253).
- (12) Adierazo nai degunari oartu bear gatzaitzka (M. Larramendi, *El imposible vencido*).

Erabilera orokor hauetaz gain beste erabilera bat ere, eskualde batean baino gehiagotan gertatzen dena, aipatu behar dugu. Izan ere, euskalki anitzetan, erabilera nagusiaren ondoan beste aukera bat ere agertzen da, gutxiago edo gehiago baliatua. Kasu horretan aditz osagarria iragangaitza bada, adizkera datiborik gabekoa izanagatik ere, aditz laguntzailea iragangaitza izanen da. Iparraldeko testuetan agertzen da batez ere jokamolde hau (zubererazkoetan izan ezik) baina baita nafarrerazko, gipuzkerazko edo bizkaierazko autore batzuen lanetan ere. Hala ere, euskalki hauetan beste erabilera da maizenik agertzen dena (ik. *OEH*, IV, 303)

- (13) Semea, etzara bertze aldera itzuli behar, (...) (S. Pouvreau, *Iesusen imitazionea*, 177).
- (14) Etzara hargatik haserretu behar, eta haserretzekotz ere zeure buruaren kontra haserretu behar zara, eta ez itsuaren kontra, (...) (P. Axular, *Gero*, 310).
- (15) Ez gare beraz harritu behar, nunbaitikako jaun handi batzu heldu badira ere, (...) (J. P. Arbelbide, *Igandea edo Jau-naren eguna*, 32).

¹ Lotu behar diogu ikasteari bezalako erabilerak (Zaitegi) bakan agertzen dira, eta testu modernoetan bakarrik (*excepciones raras y modernas* dio *OEH*ak, IV, 305).

- (16) Gure Jaungoikoaz bakarrik *bear gera oroitu* (D. Inza, *Kristau ikasbidearen azalpena*, 132).
- (17) Baña sinismen oso-osoan egon *bear gera*, lenen-lenengo Amari agertu zitzaiola (J.I. Lardizabal, *Testamentu Zarreko eta Berriko kondaira*, 466).
- (18) Mugonez *oroitu bear gerade*, berandu dator sendagarria, gaitzak indarrak artzen baditu (V. Mogel, *Ipui onak*, 24).
- (19) Guziok jakin, eta ondo aditu, edo ezagutu *bear deguna*, azaltzen *abiatu bear gera*: (J.I. Guerrico, *Kristau dotriña*, 2, 402).
- (20) Ez, ene biotzeko semea, esaten zion Amak, zu oraindik munduan *izan bear zera* (G. Arrue, *Santa Genovevaren bizitza*, 70).
- (21) Orregatik bada *Oitu bear zera*, ala ziñatza, nola santiguatzera hiru gurutze egiñaz (*Icasbidea Christaven Doctrina azalquera laburraquin*, 3).
- (22) *Etzara ikaratu bear*, eztozue gogaitu *bear*, jausten zareanean gatx biziozkoen baten (P. A. Añibarro, *Lora sorta espirituala*, 144).
- (23) Guziok jakin, eta ondo aditu, edo ezagutu *bear deguna*, azaltzen *abiatu bear gera* (A. Cardaveraz, *San Ignacioren ejercicioac*, 2, 31).
- (24) Gauza batzuk *bear dira* egin, beste batzuk egitetik *bear gera gorde* (L. Villasante, *Kristau fedearen sustraiak*, 75).

Honenbestez, ondokoa da Euskaltzaindiaren gomendioa:

1. *Behar izan* aditza aditz laguntzaile iragankor gisa jokatu da, ondoan agertzen den aditz osagarria edozein motatakoa delarik, iragangaitza denean ere bai:

- a) *Lan egin behar dugu*
- b) *Liburua ekarri behar zenidan*
- c) *Etxera joan behar dut*

• ***du*-aditza + *behar* =====> [aditza] + *behar* + *du*-saileko aditz laguntzailea**

• ***da*-aditza + *behar* =====> [aditza] + *behar* + *du*-saileko aditz laguntzailea**

2. Halere, lehen puntuan esana ez da beteko *behar izan* aditza, datibodun aditz iragangaitz batekin agertzen denean. Orduan *izan* laguntzailearen *zaio*-saileko formak erabiliko dira beti:

- a) *Bihar mintzatu beharko natzaizu gai horretaz*
- b) *Azkeneko gauza guztiak ahaztu behar zaizkizu*

• ***zaio*-aditza + *behar* =====> [aditza] + *behar* + *zaio*-saileko aditz laguntzailea**

3. Bestalde, zenbait euskalkitan, Iparraldekoetan batez ere, *behar izan* aditzak *izan* laguntzailea har dezake aditz iragangaitzekin:

- a) *Joan behar naiz*
- b) *Ez zara ikaratu behar*

Jokabide hau ere ez da gaitzesten:

• ***da*-aditza + *behar* =====> [aditza] + *behar* + *da*-saileko aditz laguntzailea.**

(Euskaltzaindiak, 2001eko otsailaren 23an, Lekeition, eta maiatzaren 25ean, Donostian, onartua)